



MARIASUN LANDA ETXEBESTE IDAZLEA

ARRATE EGAÑA

Mariasun Landa Etxebeste, topikoak nahi duen haurliteraturgiletzat hartu beharrean, besterik gabe idazle on bat dela esan dezakegu.

Haur nahiz helduek gogoz irakurtzen dituzten 16 liburuekin sari batzuk irabazi ditu, besteak beste Euskadi Saria 1.991 eta hartu du parte Europako literaturari buruzko kongresuetan. Gainera zenbait ipuin gaztelera, grekeraz, katalanez, galegoz eta bretoiez irakur daitezke (laister ingelesez ere bai).

Mundu bitxi bat osatzen duten ipuin ahuten, istorio paregabeak kontatzen dizkigu Mariasunek, umorez eta berez-bereza duen filosofiaz ziprztinduak.

Nahiz eta gaur egun Donostian bizi, errenteriarra da jaio-tzez.

ERRETERIA, ZER DA EDO ZER IZAN DA ZURETZAT?

Errenterian jaio nintzen eta hiru urtekin Ordiziara joan nintzen bizitzera, baina ama, izebak, aiton-amonak hangoak dira. Gainera nire izeba Joxepik, orain dela gutxi arte, komestible denda bat izan du Erdiko kalean.....

JOXEPI DENDARIA IPUINARENA ?

Bai, bere dendatxo horretan, hain zuzen, oinarrituta dago nere ipuina.

Ama beti errenteritar sutsua izan da, Maddalenaren bezperan Zentenarioa entzunarazten zigun irratian. Maddalenetan agertzea bada ere gustatzen zait ahal baldin badut. Dena den amorru pixka bat ematen dit lokalismo horrek; euskaldunen ezaugarri bat ematen du. Ni leku askotan bizi izan naiz, Gipuzkoan zehar eta Parisen. Alde hortatik Euskalherrikoa sentitzen naiz.

ESANGO AL ZENIDAKE ZER EDO ZER ZURE IKASKETA ETA LANARI BURUZ ?

Filosofia hutsa Parisen ikasi nuen eta 1973-an bueltatu nintzen hona eta euskera ikasten hasi nintzen. Belarriz ulertzen nuen zerbait, etxean entzundakoa, baina buru belarri saiatu nintzen euskeraren asuntoan. Bi ikastoletan ihardu nuen; ha 11 urtez irakasle bezala egin eta gero Iralen egin nuen lan 6 urtez.

IRAKASLE BEZALA ?

Bai, nik hasieran euskera didaktikoki ikasi nuen, jendeari entzuten, ikastoletan lan egiten, inguru euskaldun batean mur-

gilduta erabat. Beste garai bat zen, ez zegoen liburu askorik euskeraz, gaur egungo aukera edo prestakuntza.

Duela bi urte hasi naiz Magisteritza Eskolan, euskal literatura eta literaturaren didaktika irakasten. Oso gustora nago, hori da, azken finean, gehien bat gustatzen zaidana.

NOLA ETA NOIZ HASI ZINEN IDAZTEN ?

Ba, betiko erantzuna da: txikitatik. Egiten nuen gauza on bakarra idaztea zen, idaztea baino imajinatzea. Ez naiz izan oso trebea ezertan, eskolan neukan berezitasun bakarra idazlanak ondo xamar egitea zen. Txikitan edo gazte garaian esaten zidaten ondo idazten nuela eta horrek motibatu egiten ninduen.

Eta nola? Ba niri gauza nahiko fantastikoak ateratzen zitzaizkidan. Ikastolan material gutxi zegoen garai hartan eta



ipuinak hasi nintzen idazten nire ikasgelan lantzeko. Horrela atera zen lehen ipuin bilduma. *Amets uhinak*.

NOLA IKUSTEN DUZU HAUR LITERATURA LITERATURA OROKORRAREN BARNEAN ?

Niretzat literatura ez da gehiegi sailkatu behar, eremu zabala bait da. Hemakumeen literatura, haurren literatura.... Hori da sailkatu beharra!

ETA MARJINATU

Noski. Haur literatura bigarren mailako literatura da askorentzat. Gaur egun ipuin zoragarriak egiten ari dira arlo horretan, helduak harrিতuta gelditzen dira irakurtzen dituzten haur liburu interesgarriekin, ez da behar bezala ezagutzen haur literatura.

Nik uste dut egin behar den literatur sailkapen bakarra literatura ona eta literatura txarraren artekoa dela. Argialetxeek sailkatu egiten dituzte liburuak, pedagogi eta komertzialtasunaren ikuspegitik.

ZERTARAKO IDAZTEN DUZU: DIBERTITZEKO, IRAKAS-TEKO, BARRUKO BEHARRAK ATERATZEKO ?

Hasieran ilusio da nagusi. Gero, norberak bere burua adierazteko bide bat izaten dela esango nuke. Eta, irakurle hipotetiko batekin komunikatzeko prozesu bat.

Bestalde, nik beti lehendabizi niretzat idatzi izan dut, nahiz eta oso nirekoia iruditu, liburuak nire zensura pasa behar du, niri gustatu behar zait.

IPUIN "KLASIKOAK" GUSTATZEN AL ZAIZKIZU? ZER IRAKURTZEN DUZU?

Oso irakurle amorratua izan naiz, baina paradajokoki haur literatura gutxi irakurri dut. Haur literaturaren klasikoak irakurtzen oso berandu hasi naiz, duela bizpahiru urte edo: Peter Pan, Alizia, Pinotxo, Perraulten ipuinak...

Gero autore batzuk oso gustokoak ditut: Cortázar eta beste hegoamerikar batzuk, Yourcenar, Mercé Rodoreda, R. Carber... asko.

ZURE IPUINETAZ MINTZATUZ: LIBURU BATZUTAN EZ DAGO BUKAERARIK EDO BUKAERA TRISTEA DUTE. NOLA HARTZEN DUTE HAU HAURREK?

Nire ipuinen artean bukaera tristea duen bakarra *Txan fantasma* da eta kasualki arrakasta handiko liburua izan da, hizkuntz askotara itzuli da.

Zergatik beti bukaerak zoriontsuak izan behar haur literaturan?

Arau horrekin mozteko bukaera irekiak edo tristeak -ez trajikoak, negar egiteko modukoak-aukeratu nituen konszienteki.

Haurrek oso ondo dakite zer den bakardadea, edo gorrota, heriotza, bukaera tristeak... Haurtzaroan emozio gogorrenak ematen dira, baina haurrek ez dakite hitzetara eramaten. Hori dean bilatu behar da literaturan, identifikaziaren bidez.

Bereziki gorrotatzen dudana da haur literaturaren inguruan dagoen estetika light hori, horrekin puskatu nahi nuen.

BI MOTAKO PERTSONAI AGERTZEN DIRA LIBURUETAN: ERREAL EDO AHALEZKOAK ETA IRREALAK EDO FANTASTIKOAGOAK. NORTZUEKIN ZAUDE GUSTORAGO?

Biekin. Adibidez, Errusika arkakuso bat da, baina azken finean ni naiz, hain txikia eta insignifikante sentitzen naiz askotan bizitza honetan. Arkakusoak hori erreflejtzen du, bere txi-



kitasuna, bizitza laburra, egin nahi duenaren prezioa... Horren bidez nire pentsamendu esistentzialista bideratzen dut.

Beste mota bateko pertsonaiak ikastolan aurkitu nituen, Iholdi, Alex... nesken eta mutilen arteko arremanak landuz. Nire haurtzaroa isladatzen dut pertsonai horiengan.

ZURE AZKEN LIBURUA, POTX, HELDUENTZAT EGINA EMATEN DU...

Potx oso ipuin zaharra da, baina berritua eta aldatuta eman dut argitara. Oso errebindikatzaila da, azken finean diktaduta bati buruz da, Francoren garaian idatzitako ipuina. R. Landa marrazkilariak berritasun handia eman dio ipuari bere ilustrazioekin. Oso pozik nago berak egin duen lanarekin. Baina kontratzen naiz zenbaitentzat harrigarria izango dela.



ETA PROYEKTU BERRIAK?

Nahiko geldirik nago zeren eta Magisteritzako oposaketak pasa behar ditut, eta literatura baino gehiago, literaturari buruzko kritika, gaur egungo korranteak, literaturaren didaktika eta abarrekoak lantzen ari naiz. Zer edo zer egiten dut noiz-behinka baina fundamentuxko gauza handirik ez.

Dena den, ni nahiz eta geldirik egon, liburuak bere bizitza jarraitzen dute: Errusika erderaz argitaratu behar dute; Renoko unibertsitatetik idatzi didate liburu batzuk ingelesera itzuli nahi dizkidatela esanez, eta hori pauso handia da. Gero eskoletatik deitzen didate nere liburutzat hitzegiteko... Hori bai dela esaten duten bezala "vivir del cuento" (biok parrez hasten gara).

ETA EZ DIZUTE LIBURU BERRIRIK ESKATZEN?

Bai, baina jendeari gertatzen dena esaten diet: fabrika itxita dagoela momentuz.

Ba bene benetan sentitzen dugu. Dena den, hasteko hemen daukazu bere 16 liburuen datuak. Merezi dute.

LIBROS PUBLICADOS

- AMETS UHINAK.	Elkar. 1.982 Sor saila. Ipuin bilduma.
- KASKARINTXO.	Elkar. 1.982 Perkax saila.
- ELISABETE LEHOI DOMATZAILEA.	Elkar. 1.983 Perkax saila.
- PARTXELA.	Elkar. 1.984 Perkax saila.
- TXAN FANTASMA.	Elkar. 1.984 Perkax saila.
- JOSEPI DENDARIA.	Elkar. 1.985 Txalupa saila.
- IZAR BERDEA.	Elkar. 1.985 Txalupa saila.
- ERRUSIKA.	Elkar. 1.988 Txanpa saila.
- IHOLDI.	Erein. 1.988 Siberia treneko... (LISTA HONOR IBBY)
- IZEBEA TXIKIA.	Erein. 1.988 Siberia treneko... saila.
- MARIA ETA ATERKIA.	Elkar. 1.988 Perkax saila.
- AITONAREN TXALUPAN.	Elkar. 1.988 Txalupa saila.
- IRMA.	Elkar. 1.990 Txalupa saila.
- KLETA BIZIKLETA.	Elkar. 1.990 Perkax saila.
- ALEZ.	Erein. 1.990 Siberia treneko... saila.
- POTX.	Elkar. 1.992 Perkax saila.

LIBROS TRADUCIDOS A OTRAS LENGUAS

Al castellano:

Chan el fantasma	La Galera. Barcelona. 1.984.Col. La Gaviota.
La tienda de Pepa.	La Galera. Barcelona. 1.984.Col. La chalupa.
La estrella verde.	La Galera. Barcelona. 1.985.Col. La Chalupa.
La barca de mi abuelo.	La Galera. Barcelona. 1.988 .Col. La Chalupa.
Irma.	La Galera. Barcelona. 1.990.Col. La Chalupa.
María y el paraguas.	La Galera. Barcelona. 1.990.Col. La Gaviota.
Rusika.	Edit. S.M. Catamarán. Madrid. 1.993

Al catalán:

Txan el fantasma.	La Galera. Barcelona. 1.984.Col. La Gavina.
La botiga de la Pepa.	La Galera. Barcelona. 1.984.Col. La Xalupa.
L'estrella verda.	La Galera. Barcelona. 1.985.Col. La Xalupa.
La barca de l'avi.	La Galera. Barcelona. 1.988 .Col. La Xalupa.
Irma.	La Galera. Barcelona. 1.990.Col. La Xalupa.
La Maria i el paraigua.	La Galera. Barcelona. 1.990.Col. La Gavina.
Russica.	Cruilla. Barcelona. 1.992.Col. El vaixel de vapor.

Al gallego:

A tenda da Pepa.	Galaxia. Vigo. 1.984.Col. A Chalupa.
A estrella verde.	Galaxia. Vigo. 1.985.Col. A Chalupa.
O avo.	Galaxia. Vigo. 1.988.Col. A Chalupa.
Irma.	Galaxia. Vigo. 1.990.Col. A Chalupa.

Al griego:

Txan fantasma.	Soncroni Epoxi. Atenas. 1.989.
Joxepi dendaria.	Sincroni Epoxi. Atenas. 1.990

Al bretón:

Joxepi dendaria.	
------------------	--